



ELKARTEAK

ELKARTEAK:

Elkartek helburu komunak partekatzen dituzte eta helburu horiek modu eraginkorragoan lortzeko elkarrekin lan egiten duten pertsonen, erakundeen, enpresen edo taldeen arteko lankidetzak estrategikoak dira. Aliantza horiei esker, baliabideak, ezagutzak eta ahaleginak batu daitezke, inpaktua maximizatuz eta modu isolatuan lantzeko zailak izango liratekeen arazoak konponduz.

Gure enpresaren kasuan, elkarteak garrantzitsuak dira honako hauetarako:

Dohaintzen etengabeko fluxua ziurtatzea: Boluntarioak eta emailak proiektuaren bihotza dira, haien laguntzarik gabe ez guke banatzeko arroparik izango.

Gure ahalmen operatiboa handitzea: Bertako enpresekin elkartzeak, hala nola garbitegiekin, garraio-enpresekin edo arropa-dendekin, arropak modu eraginkorragoan prozesatzen eta birbanatzen lagun dezake.

Banaketa-sarea indartzea: Ongintzako erakundeekin, zentro komunitarioekin eta GKEekin (Gorputz Kanpoko Erakundea) lankidetzan aritzeak arropa benetan behar dutenei eramateko aukera ematen digu.

Proiektuaren ikusgarritasuna handitzea: Influencer-ekin, komunikabideekin edo marka etikoekin lan egiteak kausa emateko edo babesteko interesa duten pertsona gehiagorengana iristen lagun diezaguke.

Beste aldetik, boluntarioen garrantzia bazkide moduan garrantzia handia dute gure proiektuan. Haien lana funtsezkoa da hainbat alderditan. Lehenik eta behin, arropa bilketa errazten dute, dohaintza-emailen eta gure enpresaren arteko zubi gisa jardunez, dohaintzak jasotzeaz eta lokalerraino garraiatzeaz arduratuz. Gainera, proiektua sustatzeko ezinbesteko rola betetzen dute, izan ere, beren esperientziak eta motibazioak partekatuz, dohaintza-emaila eta laguntzaile berriak erakartzen laguntzen dute. Azkenik, beren dedikazio eta ahaleginari esker, arropak behar bezala antolatuta, sailkatuta eta banaketarako prest egoten dira, prozesu osoa modu eraginkorrean funtzionatzea eta beharra dutenengana iristea bermatuz. Boluntariorik gabe, gure misioa arrakastaz aurrera eramatea ia ezinezkoa izango litzateke.

Lehiakideen arteko aliantza estrategikoak ere erabiliko ditugu gizarte-eragina maximizatzeko. Adibidez, arroparekin lan egiten duten elkarteekin (Caritas adibidez). Lankidetzak horrek arropa banaketa optimizatzea, haien esperientzia eta sareak aprobetxatzea eta gune zehatzetako jarduerak bikoiztea ekidingo du. Era berean, praktika onak trukatzeko eta bi erakundeen ikusgarritasuna eta konfiantza indartzeko balioko du, pertsona gehiagori onura emanez.

Horretaz aparte, gure artean informatiko bat egotea erabaki dugu, hau da, langile arrunta aplikazioa eta bestelakoak mantentzeko, ideia da berak ere aplikazioa egitea.



Informatiko honek arroparen eskaintza interneten bidez egingo dugu, horretarako gure baliabideak erabiliko ditugu online orrialdea kudeatzeko eta arroparen antolaketa egiteko. Arroparen antolaketa (berrerabili daitekeen ikusi edo ez, argazkiak ateratzeko, arropa garbitu eta plantxatzeko...) gure langileak kudeatuko dute. Haiek antolatuko dira egunero behar diren arropen argazkiak ateratzeko eta behar diren jarduerak egiteaz, adibidez, arropa adinaz klasifikatzea, estiloaren arabera...

Beste elkarte batzuekin lankidetzan aritzean, argi eta garbi zehaztuko ditugu komunean ditugun helburuak eta xedeak. Horrek ahaleginak bideratzen lagunduko du, bai eta bi aldeek lankidetzari etekina ateratzen diotela bermatzen ere. Era berean, beren baliabideak, esperientziak edo irismena osatzen dituzten elkarteak lagunduko ditugu, adibidez, Caritas. Caritasek arropa biltzen, berrerabiltzen eta dohaintzan ematen duten serbitzuak eskaintzen ditu, eta, beraz, haien zerbitzuek gure helburuan lagun diezagukete.

Haiekin lankidetzan arituz, askoz baliabide eta arropa gehiago izatea lortuko dugu. Beren boluntarioek ere lagunduko digutelako, gure enpresa antolatzen eta etekinak biltzen.

Espainiako Gurutze Gorriak ere arropa eta beste ondasun batzuk biltzen ditu, herrialde osoan kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko. Hainbat hiritan arropa biltzeko zentroak ere badituzte, eta une jakin batzuetan bilketa-kanpainak antola ditzakete. Horregatik, haiekin batera lan egin eta arropa-bilketa antolatu ahal izango dugu, bi elkarteok etekina atera diezaiogun ekintza honi.

Elkarte horiekin lankidetzan aritzeko, gure marka aurkeztuko dugu, gure ideiak eta baloreak azalduko ditugu, uste baitugu lankidetzaren ona izango litzatekeela eta zer onura aterako ditugun eta proiektuari buruz ditugun ideia zehatz batzuk emango ditugula.

Proposamen zehatz bat, baterako publizitate-kanpaina bat izan liteke, arropa gehiago lortzeko, eta elkartearen, helburuen eta momentuaren arabera banatzen ditugu erantzukizunak. Adibidez, kolaboratzen dugun elkarteak biltegi handiagoa badu, arropa gehienak hara iristeko eta biltegian emateko antolatzen gara. Era berean, bereizita eta oro har lortu nahi ditugun helburuak kontuan hartzen ditugu, adibidez, gizartean duen eragina, lortu nahi duguna edo eman nahi dugun arropa kopurua.

